

HERRITARREN ARRETARAKO ZERBITZUEN

FOROAREN II. SAIOA

- **Ekimenak herritarren arretarako zerbitzuak dituzten Euskadiko udalen arteko sarea ahalbidetzen du, ikaskuntza bultzatu eta udalerrien arteko kolaborazio-aurrerapena sustatzeko.**
- **Foroa maiatzean sortu zen, hiru lurraldeetako 14 udalekin, eta hurrengo topaketa urriaren 18an izango da.**

Euskadiko udalei aholkularitza eskaini eta udalok berritu eta modernizatzeko lanaren barruan, EUDELeK HERRITARREN ARRETARAKO ZERBITZUEN FOROA bultzatzen du.

Foroa joan den maiatzaren 28an sortu zen, 14 udalekin guztira. Ikasturte honetako hurrengo lan-saioa datorren **ostegunean (hilak 18a) izango da, EUDELeK Bilbon duen egoitzan (Zabalgune plaza 5).**

Espazio berri hau herritarren arretarako zerbitzua duten toki erakundeetako arduradun politiko eta teknikoei zuzendurik dago, eta esperientziak eta jardunbide onak trukatzeko sare gisa sortu da.

Foroa "Tokiko Berrikuntza Agenda" delakoaren barruan dago, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza eta Merkataritza Sailarekin elkarlanean garatutako programaren barruan, alegia.

Ekimen honen bitartez, EUDELeK Euskadiko udalei herritarren arretarako esparruan ikaskuntza ahalbidetu eta kolaborazio-aurrerapena bultzatzeko espazioa ahalbidetu nahi die.

Jardunbide Onen trukea.

Urriaren 18ko saioan, udal parte-hartzaileen jardunbide onak aurkeztuko dira, hala nola, Gasteizko "**Herritarren postontzia**" edota Ermuko Udalaren Gizarte Zerbitzuetako Izapideak izeneko proiektua **Abiapuntu** delakoan, kasurako.

Dinamika parte-hartzailea izango da, udal parte-hartzaileen proposamenak eta beharrianak jasotzeko:

"Herritarren arretarako zerbitzuen gaineko udal truke eta ikaskuntzarako foroa"

Eguna: osteguna, urriak 18

Orduategia: 09:00etatik 13:00etara

Lekua: EUDEL, Zabalgune plaza 5, Bilbo

EGITARAUA:

**09:00etatik
09:15era**

Harrera

**9:15etik
11:00etara**

Praktika onen aurkezpena

**11:00etatik
11:15era**

Atsedena

**11:15etik
13:00etara**

Hobekuntzarako aukeren azterketa

Harremanetarako: Eudel.

Helbide elektronikoa: ailidazkaritzateknikoa@eudel.net/

Tel.: 944231500